

058

DOKUMENTUAK

**EUSKALDUNON
HIZKUNTZA
ESKUBIDEAK
OLDARRALDI
JUDIZIAL BETEAN**



**MANU
ROBLES
ARANGIZ**
FUNDAZIOA

EUSKALDUNON HIZKUNTZA ESKUBIDEAK OLDARRALDI JUDIZIAL BETEAN

Sarrera	3
1. Euskara sozialki nagusi den eremu geografikoa agortzen ari da	5
Iñaki Iurrebaso Biteri (<i>Soziologoa</i>)	
2. Euskararen oinarri juridikoak eta udalen normalizaziorako tresnak	19
Miren Segurola Larrañaga <i>Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kordinatzailea</i>	
3. El euskera es nuestra herramienta de lucha para hacer un mundo mejor	27
Pello Igeregi Santamaria (<i>ELAko euskara arduraduna</i>)	



Dokumentuak 58

2024ko urria

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

SARRERA

2023ko azaroaren 4ean, "Euskaldunon hizkuntza eskubideak oldarraldi judizial betean" mintegia antolatu genuen. Goiz hartan Iñaki lurrebaso soziologoa eta UEMAko Miren Seguiolaren hitzaldiak entzuteko aukera izan genuen Erandioko Merkatu Zaharrean. Arratsaldean berriz, Kontseiluak deitutako manifestazioan parte hartu genuen, "Oldarraldiaren aurrean euskararekin bat, euskaraz bat" lelopean.

Mintegia antolatzearen arrazoi nagusia euskaldunon hizkuntza eskubideak jasaten ari diren erasoen aurrean gure hizkuntzaren egoerari buruzko hausnarketa partekatzea izan zen.

Euskararen lurralde zabal batean euskara gaeliko bilakatzeko prozesuan dugu. Euskara formalki ezaguna den hizkuntza izan daiteke, praktikan erabilia ez dena, hizkuntza arloan ari diren politikariek esaten digutenean kontra euskaldun osoak gero eta gutxiago baitira. Hau da, euskaraz bere komunikazio arruntak naturaltasun osoz egiteko gaitasuna duten euskaldunak gero eta gutxiago dira, alfabetatutako euskaldunak agian inoiz baino gehiago direnean. Hezkuntzak ezin dio aurre egin merkatu kapitalistaren arauen arabera sozializazio espazio ia guztietan gaztelaniak duen monopolioari (aisialdian, komunikabideetan, kulturean....).

Euskal Herriko beste lurralde batzuetan euskara zuzenean desagertze bidean da.

Hizkuntza zapalkuntzari aurre egiteko erabat ez-nahikoak diren neurriak bultzatu dituzte administrazio publikoek, gutxieneko hizkuntza eskakizun batzuk ezartzea horien artean. Ez-nahikoak direla diogu, gaztelaniak soilik lan egitera bideratutako politikak direlako, euskaldunontzat bazterreko eskubide batzuk esleituta. Neurri horiek ez dira nahikoak izan administrazioek euskarazko zerbitzuak bermatzeko, ezta administrazioetako langileek euskaraz lan egiteko eskubidea izan dezaten. Eta, hala ere, gaztelaniaren erabateko inposizio babestu nahi duten sektoreek gehiegizkotzat hartu eta oldarraldi judizial, politiko, mediatiko eta sindikala pairatzen ari gara.

Bada, eraso horiei aurre egiteko bazka ideologikoa eman genien gure militanteei goizez eta kaleak bete genituen arratsaldez. Aipatutako tes-tuinguru honek argiunerik ere baduela erakutsi genuen, Euskal Herrian bada euskal kontzientzia eta euskararen aldeko nahi handi bat, Bilboko kaleetan 50.000 pertsonak gorpuztu genuena, eta goizean Erandion bildutako ELA sindikatuko berrehun militanteok erakutsitakoa.

Goiz hartan hitz egindakoak bildu ditugu esku artean duzun dokumentuan, irakurri eta izan dadila hau mobilizazioa elikatuko duen bazka berria.

On egin!

Pello Igeregi Santamaria
Euskara Arduraduna ELAn

1) EUSKARA SOZIALKI NAGUSI DEN EREMU GEOGRAFIKOA AGORTZEN ARI DA

Iñaki Iurrebaso Biteri (Soziologoa)


Luxua da hainbeste euskaltzaleen aurrean ikerketa baten emaitzak aurkeztu ahal izatea. Pozik nator horregatik. Ez nator hain pozik, aurkeztu behar dizuedan errealitatea ez delako oso pozgarria. Asko laburtuz, bi gauza esatera nator. Euskara egoera askotan ustea izan duguna baino larriago dagoela batetik, eta, bestetik, horren aurrean esnatu beharra daukagula.

Normalean ez dut egiten, baina hitzaldi hau eskaini nahi diot pertsona bati. Etxean bizi genuen osaba bat, Luis Biteri Larrea. 36-ko gerran guda-ri ibili zen Elako San Andres batailoian. Euskaltzale eta abertzale sutsua izan zen bere bizitza osoan. Gaur berarekin gogoratu naiz.

Aurkeztuko dizuedana nik egindako ikerketa bat da, baina oinarrian dauden datuak ez dira nik egindako ikerketa batenak, baizik eta Euskal Herrian dauden datuak dira, gehienak erakunde ofizialek sortutakoak: Eustat, Nastat, Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterra... Horretan zortekoak gara. Euskal Herrian iturri estatistiko onak ditugu, beste toki gehienetan nazio zapaldu gehienetan baino hobek. Euskal Herri mailako ikuspegi sarituko naiz orokorrean. Kasu batzuetan hegoaldeaz hitz egingo dut, Iparraldean gai askori buruzko informazioa ez daukagulako

Lehenengo ahaleginduko gara perspektiba luzean non gauden kokatzen. Irudikoa da gure bilakaerari buruz dagoen datu serie bakarrenetakoa. Hemen zehazki jasotzen da etxeetan euskara umeei ze puntutan transmititu zaien azkeneko mendean: 1906 eta 2016 urte bitarteko datuak ditugu.

1. Irudia. *Euskararen transmisioaren bilakaera historikoa*



Lehenengo eta behin, galera edo ordezkapen fase sakon bat bizi izan genuen XX. mendearen lehenengo bi herenetan. Euskara geroz eta ahulago zegoen, Euskal Herriko etxeetan. Geroz eta ume gutxiago hazten ziren euskaraz. Honen atzean bi errealitate daude. Alde batetik, migrazio fluxuak daude. Jendea etorri zen kanpotik, eta horietako gehienak, jakina, seme-alabak erdaraz hazi zituzten-eta. Baina bestetik, euskaldun-etxeetako batzuetan euskara transmititzailari utzi zitzaion. Egia da aldi guztietan euskal etxe gehienetan euskara transmititzen jarraitu zela eta salbuespena zirela transmititzen ez zutenak. Baina poliki-poliki, itokin bat bezala, norabide horretan gindoazen.

Ikusten da, baita ere, nola badagoen joera aldaketa bat: 1.920, 1.930 hamarkadetan abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna sendoago zegoen. Bazirudien joera aldaketa baten hasiera zetorrena. Sekula ez dugu jakingo 36ko gerra piztu ez balitz edo beste modu batean bukatu izan balitz, non izango ginatkeen gaur egun, sozio-linguistikoki. Segur aski toki ezberdin batean.

Galerarik handienak frankismo garaian gertatu ziren. Horraino bakarrik ikusita, argia zen zein zen gure hizkuntza komunitatearen patua: beste asko bezala, desagertzerako bidean geunden.

Baina 60. hamarkada inguruan, aldaketa sozial, politiko, ekonomiko-kultural sakonak gertatu ziren gure herrian, eta testuinguru horretan euskaltzaletasun berri bat sortu zen. Horren emaitza dira denok ezagutzen dugu garai hartako ikastolak eta euskara batua eta beste mila adierazpen. Honek erakusten digu adierazpen formalago horiekin batera, gizabanakoen bizitzan, euskal herritarren bizitzan aldaketa funtsezkoak gertatu zirela. Eta zehazki adierazten digu euskal etxe batzuetan euskara ez transmititzeko zegoen joeratxo hori ere agortu egin zela. Alegia, ordutik aurrera, oso arraroa da euskal etxeetan seme-alabei euskara ez erakustea. Eta, bestetik, adierazten digu garai hartan olatu garrantzitsu hartan euskaldundu ziren hiztun askok seme-alabei euskara transmititu zirela, nahiz eta beraien lehenengo hizkuntza gaztelania izan. Fenomeno honi dei diezaiokegu, iraultza soziolinguistikoko izena. Hemen gertatu zena zen izan zen iraultza soziolinguistikoko bat, eta joera guztiz aldatu zen. Gizarte zientzietan ez dira arruntak horrelako joera aldaketa indartsuak hizkuntza gutxituetan. Estatu bat edukita akaso, baina estatu bat eduki gabe, horrelako aldaketa bat egitea, mundu mailan zera harro erakusteko moduko gertaera da.


Azken 20 urteetan gertatutakoa aztertzeko, grafikoz honetaz gain datu gehiago baditugu. Adierazle batzuetan jarraitu dugu hobetzen, lehen

baino polikiago. Beste datu batzuetan duela 20 urteko mailan gaude, eta beste batzuetan berriz, beherantz jo dugu. Horregatik deitu diogu geldo-tzearen aroa: ez aurrera, eta ez atzera. Zehaztasun gehiagorekin ezin da ziur esan. Argi dagoena da, aurreko dinamika indartsua bukatu egin dela.

Ikus dezagun orain zein den gaur egungo euskararen egoera. Hizkuntza bat osasun aldetik nola dagoen esateko, teoria soziolinguistikoak esaten digu hauek izan daitezkeela funtsezko alderdiak: hizkuntza-gaitasuna, erabilerak, jarrerak-motibazioak-atxikimendua, transmisioa-sozializazioa, hizkuntza-bilakaera eta lurralde-nagusitasuna.

Hizkuntza gaitasuna da gure ahulgune garrantzitsuetako bat. Urteetan aurkakoa esan izan dugu, baina datuak pixka bat xeheago ikusita, hau da niri behintzat ateratzen zaidan ondorioa.

2. Irudia. Ahozko hizkuntza gaitasuna. 16 urtetik gorako hiztunak, Euskal Herria, 2021 (%)




Sailkapen honen arabera zazpi multzotan banatzen dira Euskal Herriko 16 urtetik gorako hiztun guztiak. Muturretan ditugu elebakarrak: alde batean erdaldun elebakarrak eta beste muturrean euskaldun elebakarrak. Hauek dira bere hizkuntzan ondo hitz egiten dakitenak eta bestea ondo ulertzera iristen ez direnak. Erdirago etorrira, beste bi kategorietan ditugu erdaldun hartzaileak eta euskaldun hartzaileak. Horiek dira bere hizkuntza ondo hitz egin eta beste hizkuntza ulertzeko gai direnak, baina hitz egiteko gai ez direnak. Elebidunek dakigu bi hizkuntzetan ondo edo nahiko ondo hitz egiten, baina hauen barruan ere denak ez dira berdinak. Euskal elebidunek, euskaraz errazago egiten dute dutenak erdaraz baino.

Erdara elebidunak, euskaraz hitz egiten jakin arren erdaraz errazago hobeto moldatzen dira. Azkenik, nagusitasunik gabeko elebidunak, bietan berdin moldatzen diren hiztunak.

Horrela begiratuta, sailkapen honetan, guztiz lerratuta dago mutur erdaldunera. Hau da, edozein egoera elebidun edo parekide batetik urrun gaude. Mutur euskaldunena ia hutsik agertzen zaigu. Datu hauek laburtuz, bi multzo nagusi egin ditzakegu: erdaraz errazago moldatzen diren hiztunak 2.200.000 dira; euskaraz errazago moldatzen direnak 210.000. Desoreka begi-bistakoa da, proportzioa da hamar-bat. Hizkuntza gaitasunean oinarri ikaragarri ahula daukagu.

3. Irudia. Sintesia I



Eskema honetan, adierazle desberdinak kokatuko ditugu. Mutur batean jarriko genuke hizkuntza, heriotza, latina, gaur egun hildako hizkuntza bat eta adibidez. Eta beste puntu jarriko genuke erabateko nagusitasuna. Esate baterako, Toledon gaztelania gaur egun. Kasu honetan, hizkuntza-gaitasunean, Toledon gaztelania hizkuntza nagusi duten hiztunak izango dira %100, %95 edo halakoren bat. Euskara %8an kokatuko genuke.

Erabilerari dagokionez, inkesta sozio-linguistikoaren arabera, erabilera aitortua egon daiteke % 15aren inguruan. Kanean behatzen denean baxua goa da, baina, %11, %12 edo %15 inguruko kopuruak erabili ditzakegu. Hizkuntza gaitasunaren eta erabileraren arteko harremana aldebikoa da. Alegia, batak bestearengana eragiten du, bi norabideetan. Harreman hau zelakoa den bi lerroburutan azal daiteke. Lehenengo esan dezakegu erabilera dela hizkuntza-gaitasunaren motorra. Nik ezin dut hizkuntza bat

ikasi ez badut erabiltzen. Edo, dakidan hizkuntza bat erabiltzen ez badut, gaitasuna galdu egingo dut, geroz eta okerrago hitz egingo dut. Aldiz, asko erabiltzen badut, joango naiz trebetasunean hobetzen. Ildo horretatik, lehen lerroburua hauxe litzateke: euskaldun gehienek gaur egun gehiago hitz egiten dute erdaraz euskaraz baino. Besteak beste, euskaraz erabiltzeko aukera mugatua daukatelako. Ez da hau, borondate kontu hutsa. Beraz, lehen ikusitako errealitate hori elikatzen eta indartzen doa: hau da, euskaldunen artean gehienak erdal elebidunak izatea. Euskara gehiago erabiltzen dutenak izan daitezke 300.000 lagun inguru.

Kontrako norabidean harremana horrelakoa da: hizkuntza gaitasuna da erabilerarako zoru. Nik hizkuntza bat ez badut ezagutzen, ezin dut erabili. Ezagutza maila bat behar dut erabili ahal izateko. Eta maila kolektibo batean ere berdin. Nik bikotekidea baldin badut, ni elebiduna naiz eta bikotekidea euskaldun elebakarra bada, derrigor egingo dugu euskaraz. Bikotekidea baldin bada erdaldun elebakarra, derrigor egingo dugu gazteleraz. Eta elebidun hau bada, orduan edukiko dut aukera batean edo bestean aritzeko, ezta?

Orduan, Euskal Herriko hiztunen ezagutza kontuan hartuta, eta sareetan nola gauden antolatuta aintzat hartuta, esan genezake euskara asko erabiltzen dela. Alegia, dagoen hizkuntza gaitasunerako, asko erabiltzen dela euskara. Hori, kontuan hartuta, batetik, euskaldun gehienek gaur egun errazago egiten dutela erdaraz, euskaraz baino, gaitasunagatik, dagoen erabilera-maila handia da.

Beste modu batean esanda, gaur egun badaude euskaldunak, euskaraz errazago moldatzen diren arren gaztelerara jotzen dutenak. Baina horrek baldin badauka nolabait horrelako neurria, gurean askoz ere handiagoa da aurkako norabidean dagoena. Hau da, gehiago dira, erdaraz errazago egiten duten euskaldunek euskaraz egiteko duten joera.

Denok ezagutzen ditugu horrelako hiztunak: bi hizkuntzatan jakin baina erdaraz errazago moldatu arren, bere bizitzaren parte bat euskaraz egiten dutenak. Hori da hizkuntzarentzat arnasa. Horri esker gaude gauden mailan. Hor badago osagai militante bat, edo euskara indartzeko nahiarekin lotutakoa. Hori gure argazkiaren alde positibo esanguratsu bat da. Erabilera datuak lehengo eskeman kokatuz, zera dugu: Toledon gaztelaniaren erabilera %95ean badago, latinarena %0an eta euskarena %15ean.

Alderdi subjektiboak azter ditzagun: jarrera, motikizioa, atxikimendua, euskaltzaletasuna. Hau da gure beste indargune bat. Lehen esandako

beste indargunea, alegia, erosotasunak aginduko lukeena baino euskara gehiago erabiltzea, horrela da, badagoelako euskaldun izateko nahi indartsu bat, horren alde eragiten duena. Gertaera nahiko ezohikoa da hizkuntza gutxituetan. Horrek bereizi egiten gaitu beste hizkuntza gutxituengandik. Hizkuntza ahul dago, baina honi eskerrak eusten zaio gaur egun daukan mailari. Honek huts egingo balu, oraindik ere beherago joango ginateke, zalantzarik gabe.

Hala ere, esan egin behar da, alor subjektiboetan ere baditugu ahuldade garrantzitsuak. Badaude sintomak azkeneko urteetan, sentimendu hori ahultzen ari dela iragar dezaketenak.

Azter dezagun transmisio-sozializazioari dagokionez zelan gauden. Hizkuntza hurrengo belaunaldiei pasatzeari gurz ari gara. Hizkuntza batek hori ziurtatzen ez badu, hizkuntza horren heriotza denbora kontua da. Hau da gure bigarren indargune garrantzitsua. Badago zer hobetua, badaude hutsuneak, baina honetan fin gabiltza: gaur egungo guraso edo familiek ahalegin bat egiten dute seme-alabei euskara ondorengotzeko, euskara transmititzeko. Euskara gehiago transmititzen dio gaur egungo belaunaldiak berak jaso zuena baino. Zentzu horretan, belaunaldi arteko perspektiban aurrerapen bat dago,


Lehen esandakoarekin loturik, erdaraz errazago moldatzen diren elebidunen multzo garrantzitsu batek ere euskara transmititzen die hurrengo belaunaldiei.

Erdaraz errazago egiten duten euskaldunen portaeran, badago mailaketa bat. Haietako batzuk dira euskaltzale sutsuak eta jotake euskaraz egiten dute ia ahal duten guztietan. Beste batzuk, euskaraz aritzen dira, baina gutxiago. Mailaketa horretan, puntu komuna, hizkuntzaren transmisioa da. Alegia, gazteleraz errazago egiten dut, baina gutxienez seme-alabei euskara egingo diet. Jarrera hau, hizkuntza-komunitatearentzat indargune bat da, hiztunak eta euskaldun kontzienteak sortzen diren heinean. Honetan ere, nazioarteko konparaketak eginda, argazkian ondo ateratzen gara. Hizkuntzaren egoera laburtzen duen eskeman, transmisioarena da daturik positiboena, %26 inguruan.

Hurrengo puntua hizkuntza bilakaera dugu. Honek neurtzen du, bizialdian zehar hiztunek ditugun aldaketa linguistikoak. Ni jaio ninteke etxe erdaldun batean, eta nire lehenengo urteak erdaraz bizi arren, gaur egun euskaraz bizi. Aldaketa positibo baten adibidea litzateke hori, baina alderantziz ere gerta liteke. Hau da, nahiz etxe euskaldun batean jaio eta hazi, gaur egun erdaraz bizi. Puntu honetan emaitzak ez dira gure

aldekoak. Lerroburua hau da: indartsuagoa da erdalduntzea euskalduntzea baino.

4. Irudia. Hizkuntza bilakaera. Erabilerazko hizkuntza-bilakaeran euskarari eragiten dioten ordezkapenak. 5 urtetiko gorako hiztunak, Hegoaldea, 2011



Hau da, hartzen baditugu etxean euskara jaso zuten hiztunak, zein den beraien egungo egoera, ikusiko dugu batz best neurri bateko erdalduntzea dagoela. Eta hartzen baditugu jatorriz erdaldunak zirenak ere, ikusiko dugu batz best euskalduntze bat badagoela. Baina indartsuagoa da lehenengoen erdalduntzea bigarren euskalduntzea baino.

Hau hizkuntza gaitasunarekin batera aztertzen badugu, etxean euskara jaso zutenen artean % 6ak euskara ahaztu egiten du. Erdaraz hazi zirenen artean, bistan da, ez dago horrelakorik. Euskara etxean eduki zutenen artean ia denek ikasi dute beste hizkuntza. Etxean erdara jasotzen dutenen artean batzuk ikasi dute, beste askok ez. Badago beste datu bat, niri bereziki deigarria egin zitzaidana: etxean euskara jaso zutenen erdiak baino gehiagok, % 55ak, gaur egun euskarazko nagusitasuna galdu egin du. Hau da, euskaraz errazago aritzeko gaitasuna galdu egin du. Hor higadura handi bat dago, beste gauza askoren artean, testuinguru linguistikoak horretara bultzatu dituelako.

Ni etxe erdaldun batekoa banaiz, zer presio, zer erakarpen edo zer indar faktiko daukat, euskalduntzera bultzatzen nauena? Ba egon badago, baina ez da oso indartsua. Ostera, etxe euskaldun batean jaio banaiz,


erdara erabiltzera erakartzen nauten testuinguruak askoz ere indartsuagoak dira.

Praktikan, gaur egungo Euskal Herriko batez besteko hiztunak non bizi diren ikusita, pixka bat ateratzen zaidan irudia, eskailera mekanikoa da. Toki gehienetan euskaraz bizi nahi izatea, goitik behera datozen eskailera mekaniko batzuetan gora egiten saiatzea bezala da. Gauza zail bat. Erandion euskaraz bizi nahi izatea ez da erraza, segur aski. Toki askotara jo, eta mintzakideek ez dakite euskaraz. Euskaraz dakiten kasuetan ere, gehienek erdaraz errazago egiten dute... Ez da erraza, ez. Horregatik, meritu berezia du horrelako testuinguruetako euskaltzale jendeak. Euskal Herriko jende gehiena, gero ikusiko dugun bezala, ba, tankera horretako testuingurutan bizi da.

Honen atzean egitura demolinguistikoa eta botere harremanak daude. Marko juridikoak ere argi eta garbi horretara bideratzen du: toki batzuetan euskara ez da ofiziala, eta euskara ofiziala den tokietan ere, bigarren mailako ofizialtasuna du. Eremu sozioekonomikora etorri, aurrekoan Pello Igeregiri irakurri nion bezala, administrazioan, lanpostuen %100ean gaztelania eskatzen da Hegoaldean. Baina administrazioz kanpo ere joan zaitez lan bila gaztelania jakin gabe! Gaztelania derrigorrezkoa ia-ia leku guztietan. Euskara ez, euskararik gabe bizi zaitezke normal Euskal Herriko toki gehienetan.


Eskaileraren irudiak zera erakutsi nahi du: ezkerrean gaudenean, hain behean egonda, berezkoa dela beheako joera bat egotea. Hau da, daukagun minorizazio mailarekin, testuinguruak berak dauka berezko inertzia bat hizkuntza gutxitzera eramaten duena. Gu hor gaudenez, orain ari gara hori nozitzen. Orain gauden egoeran daukagu berezko inertzia indartsu bat, hizkuntza ahultzera eramaten duena.

5. Irudia. Sintesia II



Lurralde nagusitasunak aztertzen du, azkenean, hizkuntza zer eremutan den nagusi. Gure kasuan, euskara edo gaztelania eta frantsesa. Ze lurraldetan da hegemoniko hizkuntza bat eta bestea? Irudiari begira gure hiru hiriburu nagusiak Iruñea, Vitoria-Gasteiz eta Bilbo, ezkerrean daude. Beste pila bat ere: Atarrabia, Erandio, Laudio... Eta jarraitu dezakegu udalerrri mota ezberdinak erakusten. Berdez, erabateko nagusitasunetik gertu, arnagunea deitzen dioguna dago. Alegia, euskara nagusi den lurraldea.

6. Irudia. Nagusitasun eremuak. Etxeko erabilera %tan, Hegoaldea, 2021




Honekin lotuta bizpahiru ideia garrantzitsu ditugu. Lehenengoa, oso ideia garrantzitsua da. Errealitate eta dinamika oso ezberdinak ditugu nagusitasun eremu horien arabera. Moltzo horien arabera ez dela berdina pasatzen Errezilen ala Erandion. Hau da, habitat naturalekin gertatzen den bezala: Afrikako sabanan jirafak sortzen dira eta Ipar Poloan hartz polarrak. Hemen habitat batzuetan sortzen da hiztun mota bat eta beste batzuetan beste hiztun mota bat. Hau da, posible da Errezilen erdaldun elebakar bat sortzea gaur egungo kondiziotan? Bizitza normal xamar bat egiten badu, ez da posible. Posible da Errezilen erdaraz errazagoa egingo duen elebidun bat sortzea? Ez da erraza. Alderantziz, Bilbon, gaur egun euskara nagusi izango duen hiztun bat sortzea? Posible bada, ez da hau bezain determinantea. Ez da natura bezain determinantea. Posible izan daiteke, baina ez da batere erraza, eta gutxi sortzen dira. Datu enpirikok esan dute hori gutxi sortzen dela. Orduan, habitat bat indartzeak esan nahiko du hiztun mota bat indartuko zaigula, edo beste hiztun mota bat.

Hau oso lotuta dago lehen aipatutako prozesuekin. Habitat batean, transmisioan euskara da nagusi, bestean erdara. Hizkuntza-bilakaera prozesuekin ere antzerako. Bizitzan zehar gehiago euskalduntzen edo erdalduntzen garen, habitat horien arabera izango da. Ingurune euskaldunak, euskararen aldeko joko-zelaiak dira.

Hori esanda, hau da gaur egungo nagusitasun horren araberako banaketa. Hitzunen % 66a bizi dira euskararen erabilera %10era iristen ez den tokietan. Hor sartzen dira, besteak beste, Vitoria-Gasteiz, Iruñea, Bilbo eta toki pila bat. Eta, aldiz, euskara nagusi den zonaldeetan bizi diren hiztunak, alegia arnaguneetan bizi direnak, izango lirateke 130.000 inguru. Berriz ere, desoreka ikaragarria dugu. Berez, 10 hiztunetatik 9 berezko dinamikak erdalduntzea indartzen duten testuingurutan bizi dira. Alegia, euskararako zailak diren testuingurutan. Aldiz hitzunen %4 edo %5a iturriaren arabera, euskararen aldeko testuinguruetan.

7. Irudia. Hitzunen banaketa, bizi diren udalerriko kaleko erabilean euskarak duen pisuaren arabera. Hegoaldea, 2016



Bigarren ideiak zera azaldu nahi du: euskal herritarren %4 edo %5 bizi dira tokietan, non euskaldun nahi izatea da eskailera mekanikoak behar duten zentzuan joaten diren tokietan bizitzea. Nik euskaldun izan nahi dut, eta testuinguruak lagundu egiten dit. Biztanleriaren %90a bizi dira alderantzizko egoeratan; eskailera goitik behera dator eta hortik igo behar duzu. Ez daukazu beste aukerarik.

Hirugarren ideia: nahiz eta gutxi izan gune euskaldun hauetan bizi diren hiztunak, zonalde horiek egiten dioten ekarpena euskarari handia da. Zonaldeak duen tamaina baino handiagoa da.

Jardunaren osagaiarekin zer neurtzen dugu? Nolabait esateko, jarriko bagenitu magnetofoi handi batzuk Euskal Herriko txoko guztietan, eta jasoko bagenu euskara non egiten den? Bilbo da gure hiriburu handiena eta euskaldun gehienak gaur egun han bizi dira. Bada, Bilbon bezainbeste euskara produzitzen da Azpeitian bai. Hau da, grabatuko bagenitu bilbotar guztien elkarrizketak eta azpeitiar guztien elkarrizketak egunaren bukaeran, Bilbon bezainbeste euskara izango genuke Azpeitian. Orokorrean ikusita, UEMAko herriek, produzitzen dute egiten den euskararen erdia baino gehixeago. Orduan, gune horiek garrantzitsuak dira ikuspegi horretatik ere.

Bilakaerari buruzko datu batzuk azalduko ditugu. Euskara sozialki nagusi den eremu geografikoa agortzen ari da. Daukagun azkeneko urteetako joerarik kezkarrienetako bat da hori. Gerra aurretik, euskara nagusi zen eremuan, bertan biziko ziren euskal herritarren %30a baino gehiago.


XX. mendean zehar, frankismoan bereziki, kopuru hori joan zen jaisten, jaisten eta jaisten. Indarberritze prozesuan beste alderdi askotan aurrera egin genuen bezala, alderdi honetan lortu zen galerari freno ematea. Baina, ez zuen kontrako norabiderik hartu. Azkeneko 20 urtetan berriro hasi gara eremua galtzen. Alderdi hori, funtsezkoa da. Lurralde horiek ere galduko balira euskararen egoera oraindik ere askoz ere zailagoa jarriko litzatekeelako aurrera egiteko.

Arnasguneak galtzeak oso egoera zailean jarriko luke euskararen aurrerabidea. Batzuk gai hauetaz hitz egiten dugunean esaten dute edo pentsatzen dute arnasgunez hitz egitea dela nolabait iraganaren nostalgia bat edo zeozer emozionala. Batzuk badute kutsu hori hartzen diote. Honetaz hitz egitea niretzat da gauza bat guztiz praktikoa. Aldeko ditugun joko-zelaiak horiek dira. Horiek galtzen baditugu, oraindik ere zailagoa izango da.

Beste herrialdeekin alderatuz, soziolinguistikoki gu baino okerrago dago Irlanda eta hobeto Katalunia. Bereizgarri bat: Irlandan ez dute arnasgunerik, ez dago Errezil bezalako herri bat. Ez dago zonalderik non hizkuntza, bere jardun arruntan hizkuntza nagusia gaelikoa den. Katalunian, nahiz eta han ere gauzak ez doazen azkeneko urteetan oso ondo, katalana hegemonikoa den lurraldea oso zabala da: lurralde jarraitu xamarra da, Girona eta Lleida ia osorik hartuko dituen. Orduan, aurrera egin nahi badugu, lurralde eremu hori trinkotzea eta sendotzea ezinbestekoa da.

Ondorioak

8. Irudia. Sintesia III



Gogorra da hau esatea, baina gertuago gaude hizkuntza-heriotza egoera batetik elebitasun parekide batetik baino. Orain erabileraren adierazlea hartuko dut eta konparatuko dut beste herri batzuekin. Erabiltzen den metafora bat da bidegurutzearena. Bidegurutze batean gaude: joan gaitezke hizkuntza heriotzara edo joan gaitezke hizkuntza normalizatuen norabidera. Erabileran %15ean baldin bagaude, nolabait esateko, Irlandarako dauzkagu 14 kilometro. Islandierak, baditu bere arazoak ingelesarekin, baina nahiko hizkuntza normalizatu da. Islandiara, 65 kilometro genituzke. Kataluniara iristeko ere, kilometroak ditugu, 25, Gertuago gaude Irlandatik Kataluniatik baino.

Gainera, kilometro denak ez dira berdinak. Guk nahiko bagenu Irlandara joan, bidea erraza litzateke. Inertziak horretara eramaten gaitu. Aldiz, gora egin nahi badugu, lana gogor egin beharko dugu.

Zer gertatuko da hurrengo urteetan?

Hemendik ehun urtera etorriko da hona beste soziologoren bat kontatzea XXI. mendean zer gertatu den euskararekin. Zer kontatuko ote digu? Kontatuko digu, akaso, euskarak, hizkuntza gutxitu gehienak bezala, beheko joera handi bat izan zuela. Egon zirela ahaleginak, lehenengoa 1.930 inguruan. Esango digu espainiar faxistek odoletan ito zutela ahalegin hura. Esango digu hurrengo belaunaldian ahalegin sendo bat egin zutela eta emaitza ohargarriak lortu zirela. Euskal Herria izan zela nazioarte mailan erreferentzia bat, hizkuntza gutxituak indarberritzeari begira.

Baina 2000. urtetik aurrera geldotzea aro bat hasi zela, eta geldotze hori joan zela sakontzen eta berezko inertziak eta nazioarteko joera nagusiak jabetu zirela, eta hizkuntza gutxitu gehienak bezala, XXI. mendean euskara asko izugarri ahuldu zela. Hori kontatuko digu? Ez, edo kontatuko digu ez, geldotze arora iritsita, beste mende batean hor jarraitu zuela ez aurrera, ez atzera. Hori kontatuko digu? Sinesgarritasun gutxieneko hipotesia nire ustez hori da.

Edo kontatuko digute, ba, egon zela indarberritze prozesu bat, oso sendoa, 60. hamarkadan hasi zena. Nahiz eta hamarkada batzuetan prozesu horrek geldialdi bat izan, 20. hamarkadan, 2.020. hamarkadan, euskaltzaleak jabetu zirela egoeraz eta lortu zutela egoerari buelta ematea eta indarberritze prozesu horrek aurrera jarraitu zuela. Zer kontatuko digute, ezta?

Bueno, ba, ez dakigu zer esango diguten. Hiru gauza dira dakizkigunak, hiru ideia. Batetik, etorkizuna errotik baldintzatuko duten prozesuak daudela nazioarte mailan, teknologikoak, kulturalak, demografikoak.

Eta horrek ez dizkigute gauzak erraztuko. Nazioarteko aurreikuspenak badakizkizue: hizkuntza gutxitu gehienak desagertuko dira hurrengo mendeen. Eta badaude sakoneko joerak horretara bultzatuko dutenak. Orduan, gauzak ez dira errazak izango.

Bigarren ideia: hori horrela izanik ere, lanak fruituak ematen ditu. Gure herriak hau lortu bazuen, izan zen, ikaragarritzko energiaz jende multzo handi bat konprometitu zelako eta garairik beltzenez, frankismo garaian, ikaragarritzko lana egin zutelako. Horrek fruituak eman ditu, Beste herri askotan egin ez dutena hemen egin zen. Eta gure barruan ere ikusiko bagenu azkeneko 30 edo 60tan zertan aurreratu dugun gehiago eta zertan ez, lotuta dago erabat egindako lanarekin. Hau da, lanak fruituak ematen ditu. Jarri egin behar da horretara eta helburuak ondo definitu, eta lana egin.

Eta hirugarrena eta azkena, ba, euskaltzaletasuna sendo edukitzea funtsezkoa da. Erakunde eta talde guztietan behar dugu hori. ELAn, uste dut bazaudetela hor euskararen militante batzuk. Garrantzitsua da horri eustea eta horri gogor ematea. Gure funtsezko berezitasun bat dela esan dugu. Gu gara hau egin duen herriaren parte. Herri sendoa izan gara beti eta horren parte gara. Ezpal bereko egurrak gara, eta hortik atera behar ditugu indarrak eta asmatu. Egia da, ez gaudela momenturik sendoenean, baina asmatu beharko dugu hor ondo kokatzen eta aurrera egiten. Beti, euskara lehentasunetara ekarri behar dugu. Ezin dugu eduki gure zortzi gaia baltz bezala. Lehen lerroan edo aurrera xamarrean jartzen ez badugu, ez da erraza izango honi aurrera egitea. Ni seguru nago ELA bezalako erakunde batek apustua egiten badu, egin dezakeen ekarpena handia izan daitekeela bide honetan.

2) EUSKARAREN OINARRI JURIDIKOAK ETA UDALEN NORMALIZAZIORAKO TRESNAK

Miren Segurola Larrañaga

Udalerrri Euskaldunen

Mankomunitateko (UEMA) koordinatzailea

Sarrera gisa, saiatuko naiz motz-motzean, euskararen oinarri juridikoak zeintzuk diren zuei azaltzen, bereziki udaletako hizkuntza normalizazioaren gaiari lotuta. Horrekin batera, udaletan normalizaziorako zein tresna erabiltzen ditugun azalduko dizuet, eta tresna hauen bidez zer arautzen dugun. Gero, azalduko dizuet 30 urtetako ibilbidea zein izan den udalen euskalduntze prozesu horretan eta zein estrategia erabili ditugun horretarako. Azken partean aztertuko dugu bereziki azken bi-hiru urteetako oldarraldi judizial hori: horren arrazoiak zeintzuk diren, eta horrekin batera, azken epaien nondik norakoak azalduko dizkizuet. Bukatzeko, epai horiek gure egunerokoan udaletan zein ondorio erreal dituzten aipatuko dut. Amaieran, ausartuko naiz esaten, nire ustez, zer egin beharko lukeen xede-talde bakoitzak.

Beraz, oinarri juridikoekin hasteko, sartuko naiz udalen normalizazioari lotutako oinarri juridikoetan. Bai, oinarri juridiko ezberdinak ditugu Hego Euskal Herrian. Iparraldean ez daukagu oinarri juridikorik, baina Hego Euskal Herrian ere Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian bat daukagu eta Nafarroan beste bat. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian daukagu Euskararen 82ko Legea, geroago egin zuten 97ko dekretua, 2016ko Udal Legea eta 2019ko dekretua. Bai, horiek dira gure oinarri sendoena, nahiz eta gero Funtzio Publikoen Legean eta beste hainbat legetan ere euskarari lotutako hainbat kontu arautzen den.

Eta Nafarroan ditugu bi oinarritzkoenak dira Euskararen Legea 86 koa eta 2017ko Dekretua, gero epaitegietatik ondo moztuta dagoena.

Hizkuntza normalizaziorako zein tresna ditugu guk udaletan? alde batetik dago araugintza bera udaletan ordenantzei lotua. Ordenantzen bidez, zehaztu ahal da udalek zein hizkuntza irizpide edo jarraitu behar dituzten. Eta gero beste tresnak dira, bi plan mota. Bata da udal barruko erabilera plana, eta bestea da udalerrira begirako erabilera plana. Lehen biak dira epaitegien jo puntuan daudenak. Bai, udalerrira begirako planak, sustapenean oinarritzen diren planak dira, beraz, berdin zaie zer egiten dugun. Epaitegiek hori ez dute ez dute atakutzen. Baina beste biak bai, bai araugintza eta bai udal barruko erabilera planak. Alegia, Udalak

arautzen duenean zein hizkuntza eskakizun ezarriko dituen, zein hizkuntzetan egingo duen herritarren aurrean. Hori da epaitegietatik nolabait jipoitzen dena edo puntuan egoten dena. Horretaz gain, dezente epai egon dira Ueman sartzearen beraren aurka.

Orduan, ditugun tresna horien bidez, guk udal barruko erabilera plan horien bidez, zer da arautzen duguna? Beno, guk arautzen dugu, alde bate-tik, Udalaren zerbitzu-hizkuntza. Hau da, Udalak zein hizkuntzatan eman behar dituen zerbitzuak, arautzen dugu Udalaren irudia, errotuluak zein hizkuntzatan egon behar duten, zigiluak, Udalak adierazpenak egiten dituenean, zein hizkuntzatan egin behar dituen ... Eta gero, horrez gain, Udalak herritarrekiko izan behar dituen harremanak ea zein hizkuntzatan izan behar duten. jakinarazpenak bidaltzen direnean eta horrelako kontuak. Baina, horrez gain, arautzen du, baita ere, udal barrura begira, lan-hizkuntza nolakoa izango den. Zehazten ditugu barne komunikazioak, nola izango diren lan-tresnak, aplikazio informatikoak edo pertsonalaren kudeaketa. Hor sartuko lirake hizkuntz eskakizunaren ezarpenak, administrazioan sartzeko egin beharreko azterketa horiek zein hizkuntzatan egin behar dituen, kanpo harremanak, hornitzaileekin ditugunak eta kudeaketa-sistema oro har. Hori nolabait arautzen da hizkuntza irizpide batzuen batzuen bidez.

Aitortu behar dugu duela 30 urte administrazioa erabat erdalduna zela. UEMA sortu zenean, herri horietako errealitatea zen, bizitza soziala erabat euskaraz zen guneetan udaletxera joaten ziren, eta udaletxeek erabat gaztelaniaz funtzionatzen zuten. Beraz, 20-30 urtetan lortu dugu, legeak lege, gaztelania hutsean funtzionatzen zuten udal horietako asko euskara hutsez funtzionatzen jartzea. Eta hori aitortza bat da, eta lurrebasok egindako irakurketatik beste puntu positibo bat ere bai, toki askotan irabazi dugun funtzio bat badelako.

Baina, noski, ez da oztoporik gabeko bidea izan. Eta bide horretan, ikasi dugu legeen artean surf egiten. Abiapuntu gisa, 80 hamarkada amaieran, UEMA sortu zenean, lehen tresnak izan ziren udal ordenantzak. Udal ordenantzetan arautzen zen udalak zein hizkuntzatan funtzionatuko zuen. Baina hasiera-hasieratik denen kontra ez, baina ordenantza askoren kontra epaitegietatik sententziak iristen hasi ziren. Batez ere udal txikien aurka. Udal txikiek ez zuten baliabide ekonomikorik horri aurre egiteko. Beraz, erabaki genuen nahiko azkar eta nahiko inteligen-teki, ordenantzen gaia apartatu behar zela eta normalizazioan aurrera egin behar genuela beste tresna batzuen bidez. Beraz, ordenantzak onartzeari utzi genion, eta hasi ginen udaletako erabilera planen bidez

Udalaren hizkuntza arautzen. Erabilera plan horietan hizkuntz irizpideak txertatzen genituen, eta hizkuntz irizpide horien bidez arautzen genuen. Hau da, ordenantzak publikatu behar dituzu eta Gobernuko begi guztiak zuri begira daude. Aldiz, planak plenotik pasatzen dira, baina ez dira hain publikoak eta ez dira konturatzen. Hortik estrategia aldaketa, ordenantzetatik planetara. EAeko planek oinarria daukate 97ko dekretuan, horrek jada ezartzen duelako planak egin beharra. Hizkuntza eskakizunen funtzionamenduan oinarritzen ziren planak dira.

Ostera, Nafarroan, ez dago legerik planak izatera obligatzen zaituenik. Baina 86ko Legeak bai onartzen die herritarrei administrazioarekin euskaraz funtzionatzeko eskubidea eremu euskaldunean. UEMAko udalerriak eremu euskaldunekoak zirenez, hor oinarrituta, metodologia berdinarekin eta estrategia berdinekin, plan horiek egiten hasi ginen. Egia da Nafarroan berehala planak ere plenotik pasatzeari utzi geniola. Izan ere, Nafarroako Gobernutik berehala egiten zuten horien kontra, eta gure estrategia zen ekiditea kontu juridikoak ekiditea. Beraz, ez genituen plenotik pasatzen, baina aplikatu egiten genituen.

EAEn zer gertatu zitzaigun? Gure hizkuntz irizpideak ziren euskara hutsaren aldekoak, euskara hutsez funtzionatzearen aldekoak, errealitate soziolinguistikoak hori ahalbideratzen zuelako garai hartan UEMAko udalerrietan. Hor sortu zitzaigun lehen korapilo handia: UEMAko irizpideak alde batetik, baina beste alde batetik, lege markoa errespetatu beharra. 97ko Dekretuak ezartzen du erabilera plan bat onartu aurretik Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailari txosten bat eskatu behar zaiola. Txostena ez da loteslea, baina kontrako txostena baldin bada, oso oso zaila da udal baten idazkariaren aurka, plan hori onartzeko erabakia hartzea. Hasieran ez zegoen arazorik. UEMAko irizpideekin, Jaurlaritzak eta onartzen zizkiguten, eta aldeko txostena egiten ziguten. Eta aurrera. Baina urte gutxira hasi ziren esaten ezetz, irizpide horiek ez zeudela lege markoaren barruan. Eta beraz, adostu behar genuela idazteko modua.

82ko Legeak 8.3 artikuluan esaten zuen Euskararen Legea, elebitasuna sustatzen duen lege bat dela. Baina jaso zuten puntu bat, non egoera soziolinguistikorik hoberena zegoen lekuetan euskara bakarrik erabiltzearen aukera ematen zuena. Konstituzionalak hori bertan behera utzi zuen, eta orduan hori gabe geratu ginen. Horregatik hasi ginen Jaurlaritzarekin gure hizkuntz irizpideak nola idatzi adosten.

Azken batean, Jaurlaritzaren aldeko txostena jasotzeko batetik, eta epaitegiak ekiditeko bestetik, baina baita ere, irakurketa lauso horretan

guk interpretatu nahi genuena interpretatzeko aukera izateko. Irizpide horietan orduan idazten genuen. Hemen ekarri dut adibideren bat. “Erakunde pribatuetarako agirien kasuan euskara erabiliko da beti” eta gero jartzen genuen, “beti hizkuntza-eskubideak errespetatuz”, eta gero irizpideen amaieran horrelako oharrak “euskara erabiltzeak ez zuela esan nahi beste hizkuntzaren bat erabiliko ez zenik”. Alegia, pixka bat jolasten genuen idazteko modu horrekin. Horrela ere iristen zitzaizkigun tarteka aurkako epaiak, baina normalean beti ziren udal jakin baten kontrakoak eta artikulua jakin baten kontrakoak. Normalean beti lotuta kontratazio publikoari, diru-laguntzak emateko irizpideei, eskakizunen gaiari. Eta Nafarroan, baita erabilera planak onartzearen kontra epaiak ere.

EAEen behintzat argi apur bat ikusi genuen EAEko Udal Legea onartu zenean, eta argi pixka bat gehiago 2019an horren garapen Dekretua onartu zenean. Zergatik ikusi genuen argi pixka bat? Bazirudielako lege horiek idazterako orduan, nolabait UEMAren irizpideen espiritu hori aintzat hartu zela. Berariaz jasotzen zen euskarari lehenetsua emateko aukera. Euskara lan hizkuntza moduan ezartzearen beharra azpimarratzen zen. Egoera soziolinguistikoaren arabera irizpide ezberdinak jartzeko aukera zabaltzen zen. Bestalde, aurrez izan genituen hainbat arazori ere nolabaiteko soluzioa ematen zion. Esatera baterako, Gobernu ordezkariak aktak euskara hutsez bidaltzearekin dezente bataila izan genuen, eta dekretuak espresuki jasotzen zuen hori egiteko aukera. Beste adibide bat: oposaketetan azterketa bat euskaraz egitera behartzearekin ere dezente zalantza zegoen. Bazegoen hemen Erandioko epai bat non esaten zuen euskaraz lan egin behar baldin bada azterketaren zati bat euskaraz egitea posible dela. Dekretu hauek espresuki jasotzen zuten hori egiteko aukera. Horrez gain, sartu zuten guretzat estrategikoa izan zen elementu hau: plan eta proiektuei eragin linguistikoaren ebaluazioa egin beharra. Guzti honek argi pixka bat eman zigun.

Hala ere, nik gogoratzen dut UEMAk prentsurrekoa eman zuela lege hau atara eta gero, eta gero ere beti horrela esan izan dugu: legea ez dela guk idatziko genukeen modukoa.

Guzti hau esanda, sartuko naiz gaur egun bizi dugun oldarraldiaren arrazoiak azaltzen. Oldarraldia deitzen diogu, kontutan izanda azken bi-hiru urtetan ia 20 sententzia izan ditugu euskararen kontra. Horietatik gehienak Nafarroan izan dira, eremu mistoan. Baina, azken azkena, nik aipatu ditudan lege hauen aurka izandakoek badituzte berezitasun batzuk. Zeintzuk dira honen oldarraldi horren arrazoiak? Bat eta nagusia dirudien arrazoi hurrengoa da: beraiek pentsatzen dutela hizkuntzaren normalizazioan urrunegi joan garela.

Horrez gain, nik esango nuke, erdaldun elebakarren jarrerak aldatu egin direla. Lehen ez zegoen inolako arazorik erdaldun elebakarren hizkuntza eskubideekin. Guk beti errespetatzen genituen, baina egunen batean norbaitek ezer ulertzen ez bazuen, ez zegoen arazorik, etortzen zen, aipatzen zigun, bidaltzen zitzaion... Baina gaur egun ahaldunduta daude, eta udalen kontra egiteko epaitegietara jotzeko gero eta jende gehiago dago prest. Horrek kezkatzen gaitu.

Horretaz aparte, hainbat sindikatu eta alderdi politikoen aldetik babes handia daukate, eta presioa ere bai. Eta, azkenean, politikoki egin ezin dutena, ba, epaitegien bidez egin nahi dute. Oso adierazgarria da azken epai potenteena VOX alderdiak jarritako errekurtsio baten ondorioa izatea. Eta VOX alderdiak EAEn, ez du ezta zinegotzi bat bera ere. Funtzionamendua errekurritu dute, haiek hor parte izan gabe ere. Azkenean, oso adierazgarria da beraiek lortzen ez duten boterea alde batetik, nola beste alde batetik lortu ahal duten.

Ikus ditzagun azken epaien nondik norakoak. Aipatu behar da orain arte zeuden sententzia gehienek EAEn, oinarrian Euskararen Legea bera zutela. Euskararen Legea erabiltzen zuten, gure artikulua edo guk proposatzen genuen horren kontra etortzeko. Beraz, une batean gure estrategia ere izan zen: goazen agerian jartzera lege horrek ez digula ezertarako balio, lege hori aldatu egin behar da. Baina azkenengo sententziek jada Konstituzioa dute oinarri gisa. Hau da, gaur egun telefonoa euskaraz hartzea konstituzioaren kontrakoa da.

Azken erabaki hauek, nolabait udaloi hizkuntza politika egiteko esku-mena erabat erabat mugatzen digute. Euskararen erabilera normal eta orokorra kendu egin dute artikulua guztietatik. Alegia, beraiek interpretatzen dute erabilera orokor eta normala dela, euskaraz “bakarrik” egingo dugula. Erabat interpretatiboa da sententzia. Legean ez du inon jartzen euskaraz bakarrik egin daitekeenik, baina beraiek horrela horrela interpretatzen dute. Legetik kendu dituzte baita ere eremu soziolinguistikoaren arabera berezitasunak egin daitezkeela esaten duten aipu guztiak. Esate baterako: “Hizkuntz irizpideak egoera soziolinguistikoaren arabera ezarriko dira”. Hori kendu dute.

Azken batean, interpretazioan oinarritutako sententziak dira, eta, gainera, espresuki euskarari lehentasuna ematea kendu egin dute legetik. Orduan, horrek dezenteko oztopoak sortzen dizkigu guri eguneroko jardunean. Honek guri udaletan zuzenean, zertan eragiten digu? Gure udaletan, gure irizpideak beste behin, babes juridikorik gabe geratu

dira. Babes juridikorik ez izateak suposatzen du edozein errekurtsoren aurrean galtzeko %100eko boletoak ditugula. Hori orain latzagoa da, lehen aipatu dudan bezala, herritar erdaldunak gero eta ahaldunduago daudelako, eta gero eta gehiago direlako udalen kontra errekurtsuak jartzera ausartzen direnak. Horretaz gain, gure udaletan dauden zinegotzi ez-euskaltzaleak, gero eta aktiboagoak dira gure eguneroko jardun horren aurka. Nahiz eta euskaraz jakin, eskatzen dizkigute aktak itzultzeko, deialdiak itzultzeko. Horrek suposatzen duen kostu ekonomikoaz gain, denbora alferrik galtzea dakar. Erabaki horiek hartu behar dituztenentzat etsigarria ere bada kasu batzuetan.

Horretaz aparte, euskararen normalizazioan ari garenek, UEMAko teknikari gisa edo eragile gisa, arazo gehiago ditugu. Izan ere, gero eta gehiago dira gure irizpideen aurka idazkariek egiten dizkiguten txostenak. "Hori horrela ezin duzu egin". "Hori, bai ala bai, elebitan egin behar duzu"... Lehen garai batean, udalen euskalduntzean hasi ginenean, idazkariek oso aldeko jarrera zuten eta babes gisa erabiltzen genituen. Baina gaur egun gero eta gehiago dira, kontrako txostenak egiten ari zaizkigunak eta abar. Horretaz aparte, beste langileak. Adibide batekin errazago ulertuko dugu. Demagun, udal batek kiroldegi baten kontzesioa egin behar duela, eta guk eskatzen diogula, hizkuntza klausulak jarri behar dituztela oinarrietan. Esaten dio kirol teknikariak zinegotziari: "Igual ez ditugu jarriko, ze jartzen baditugu, asko luzatuko da prozesua, horren kontra joko dute eta orduan, igual hobeto. Ez baditugu jartzen, eta gero egingo dugu". Hau da, ez da bakarrik gaur egun lortu dugun hori mantentzeko arriskua, baizik eta atzera egiteko arriskua erreala da egunerokoan.

Azken asteetan gertatu zaidan beste adibide bat ekarriko dut. Egonkortze prozesuak hizkuntz eskakizunekin dezenteko zirimola sortu du. Hor asmatu dute eta estrategia bat landu dute, hizkuntza eskakizunak egiaztatu gabe dituzten hainbat langile egonkortze prozesuaren administrazioan bidez sartzeko. Estrategia horiek guk ere batzuetan proposatu izan dizkiogu udalei. Baina, bueno, gaina hartzen ari da kontua, eta udalek jada atea ireki dute, eta "barrura!". Orduan, UEMAtik esan genien, "Hau, tira, baina honaino, ia ez". Detaile guztiak azaldu gabe, baina deitu genuen Hizkuntza Politikara eta esan genien zein egoeratan geunden. Udaletan, txorrea bezala ari dira sartzeko hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabekoak. Hori ezin zela horrela izan, esan ziguten. Orduan eskatu genien, mesedez, txosten bat egin zezaten guk udaletara bidali ahal izateko. Ba ezetz, inor ez delako ausartzen txosten hori sinatzera. Esan genien

orduan, arduradun politikoari eskatzeko sinatu zezan. Horri ere ezetz, ez zuela sinatuko. Bi aste ero moduan ibili gara txosten bat lortzeko, eta azkenean lortu dugu udal bateko gai konkretu bati buruz IVApek txosten bat egitea.

Azkenean, hori da errealitatea. Hizkuntz normalizazioa zaila bada berez, egoera hauekin dezente gehiago konplikatzen da. Guzti honek, eskatzen die udal ordezkariari askoz ausardia gehiago, ze askotan aurrera egin behar dute kontrako txostenekin.

Herritarren hizkuntza eskubideekin lotuta, kontratazioen gaia aipatuko nuke. Azkenean, mugatu dute kontratazio pliegoetan irizpideak sartzearen kontua. Azkenean, zuk irizpide horiek sartu ezin badituzu, ezin diozu exijitu etortzen den enpresari zure irizpideak betetzea. Beraz, ezin dugu bermatu enpresa horiek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak euskaraz izango direnik.

Beste alde batetik hor dago hiztun komunitate gisa dugun eskubidea. Euskara aurrera atera dadin dugun eskubidea. Hori jada ez da eskubide indibiduala, baizik eskubide kolektiboa. Eta hori ere mugatu egiten digute epai hauek guztiek.

Hau dena esanda, ausartu naiz xede-talde batzuei begira edo zer egin beharko genukeen edo proposatzen.

Zer egin beharko genuke herritarrok? Alde batetik behintzat, euskararen alde mobilizatu eta hor gaudela esan. Azkenean, mobilizazio horiek estrategikoak dira, erabaki ausartak hartu behar dituztenentzat, erabaki horiek hartzera sustatzeko eta babesa senti dezaten. Horrez gain, praktika kontzienteak egin behar ditugu. Ikasi behar dugu euskaraz eskatzen, exijitzen ditugun urraketak salatzen. Lehen aurrez aipatu duzuen bezala, diskurtsoa harrapatu digutelako. Hau da, gure diskurtsoa zena, hizkuntza eskubideena beraiena da. Badirudi beraiek dituztela hizkuntza eskubideak urratuta. Eta errealitatea da, guk euskaraz funtzionatzen dutela diogun udal horietan ezin dugula langileentzat ikastarorik euskaraz eman. Hau da, 20 ikastarotik 18 gaztelaniaz eman behar ditugu.

Administrazioarekin harremanetan, euskara hutsezko harremanak adostuak ditugu. Errealitatea da, gure udaletan jarraitzen dutela gaztelania hutsezko dokumentuak iristen. Hori da errealitatea, baina errealitate horretan oraindik ere beraiek gure diskurtsoa harrapatu dute.

Euskalgintzak herritarrek aktibatu behar ditu, bai ala bai. Aktibazio hori sustatu behar du, eta galdutako diskurtso hau irabazteko lanketa plan-

teatu behar du. Eta gero, ba, erabaki politikoei bidea egin. Herritarrekin esan dudan bezala, euskalgintzari badagokio erabakiak hartu behar dituzten eta hartu nahi ez dituzten horiek bultzatzea, eta erabakiak hartu nahi dituzten horiei babes ematea.

Udalek erabakiei eutsi beharko diegu, estrategiak birmoldatuz berriro ere, zailtasunak zailtasun. Baina baita ere badugu lan bat errealitatea gizarteratzeko eta herriari azaltzeko zein den errealitatea. Hau da, ezin dugu esan gu garela oraindik ere hizkuntza eskubideak urratzen ditugunak. Zalantzarik ez daukat administrazioan ez dagoela udalerrri euskaldunak bezain beste hizkuntza eskubide guztiak errespetatzen dituen beste administrazioirik. Beraz, hori gizarteratzea dagokigu eta, noski, hizkuntza eskubideak errespetatzen jarraitu, guztienak.

Alderdi politikoei, lehenik eta behin, dagokie hizkuntzaren gaia serio hartzea. Ez dut uste gaur egun inork gai hau serio hartzen duenik. Euskararen normalizazioa ahalbideratuko duen marko juridiko bat diseinatzeko, saiatu behar dugu adostasunetara iristen. Nahiz eta jakin beste estatu bat daukagula, saiatu behar dugu, guk, behintzat, gurea ahalbideratuko duen ahalik eta marko egokiena diseinatzen. Azkenik, Gobernuarekin abiatzen dituzten negoziazio horietan (estatus politikoarena, Sáncherek behar dituen lau botoaren negoziazioa bada...) euskara erdigunean jarri behar dute, bai ala bai. Bestela jai daukagu.

Hau esanda, ausartuko naiz esatera sindikatuek zer egin behar duzuen. Nire ustez, sindikatuek lehenik eta behin, hizkuntza eskakizunak ezartzearen alde egin behar duzue beti. Hori esperientziatik diot, bizi izan ditugulako sindikatuen aldetik eragozpenak. Momentu konkretu batzuetan sindikatuek beraien afiliatuen alde gehiago egiten dutelako euskararen alde baino. Beraz, nik uste dut gaia estrategikoa eta garrantzitsua dela, eta eutsi beharko zeniokeela horri. Horretaz gain, sindikatuetak kideen arteko aktibazioa. Uste dudalako sindikatuek baduzuela nahikoa indar zuen kidegoa aktibatzeko. Gero, eredugarriak izan zuen egunerokoan, eta zuek bazaretela iruditzen zait. Eta gero, noski, negoziazio kolektiboetan politikariek egin behar duten bezala, euskara erdigunean jarri beharko zenukete.

3) EUSKARA MUNDU HOBE BAT EGITEKO GURE BORROKA TRESNA DA

Pello Igeregi Santamaria

ELAko euskara arduraduna

Erandiora etorri gara. Erandio ezker aldeko herri bat da Eskumaldean, Euskararentzat territorio konplikatua da, eta poztekoa da.

Euskara ekarri dugu gaur, euskararentzat erraza ez den territorio batera. Eta esan behar dut Erandion gauza gogoangarri asko egin dituela gure sindikatuak. Erandion gertatu dira hainbat kontu. Erandion, altxamendu faxistaren aurretik, hemendik hurbil CNTtek egin zuen asanblada bat, eta gure militante batzuk sartu ziren, eta bahitu egin zituzten denak. Bahitu zituzten UGT eta CNT grebak egiten ari zirelako itsasontzietan, ez soilik Euskal Herrian, baita Valentzian, beste lurralde batzuetan ere, ELAko militanteak kaleratuak izan zitezten. Beste gauzak batzuk ere gertatu ziren iraganean.

Hemen denok dakizue Sabino Arana etorkinen kontrakoa zela eta arrazista zela. Baina zuetako askok ez duzue jakingo gure sindikatua jaiotzen urtean, 1911 urtean, zinegotzi sozialista batek Bilboko Udalean hau esan zuela: *Se hallaba convencido de que los hijos de este país eran inferiores en aptitud de mentalidad a los del resto de las provincias de España.*

Zinegotzi honek hau esan eta gero, gure sindikatuak egin zuen lehenengo mobilizazioa orduan izan zen. Bilboko Udalean milaka langile euskaldun bildu ziren, eta hori izan da euskal sindikalismoak egin duen lehenengo mobilizazioa. Alderdi Sozialistak eduki du nolabaiteko koherentzia historiko bat. Urte berean, 1911n, Bizkaiko Aldizkari Sozialistan hurrengo idatzi zuten *“para el reforzamiento de los lazos entre el País Vasco y España. El euskara debe obligatoriamente desaparecer. Para los socialistas españoles el vasco no tiene lugar en la sociedad moderna”*. Eta gu gara arrazistak eta gu gara inposatzaileak. Orwellen 1984 liburuko aipu bat: *Iragana kontrolatzen duenak etorkizuna kontrolatzen du. Orainaldia kontrolatzen duenak iragana kontrolatzen du.*

Iragana inportantea da, diskurtso bat eraikitzen garamatza, jakitera zergatik gurea den hizkuntza zanpatu bat eta zergatik euskal hiztunak garen zapalduak hiztunak. Bestelako diskurtso batzuk gailentzen baldin badira, normalizatu egiten da normala ez dena, eta, beste gauza batzuen artean, euskal hiztunak inposatzaile gisa ikusi araztera garamatzate. Zapalduak gu garenean. Joan Mari Torrealdai esaten zuen amnesia kon-

trolatu beharreko gaitz bat dela, eta antidotoak behar dira, eta horregatik egin zituen lan guzti horiek. Guk ere egin behar dugu lan hori.

Euskararen kontrako lehenengo neurria Ojacastron izan zen, Ezkarai ondoan dagoen herri txiki batean. 1239 urtean gertatu zen. Fernando III. erregeak erabaki zuen epaiketak erdara hutsez egin behar zirela, euskara desagertu egin behar zela epaitegietatik. Eta zer egin zuten? Ojacastron erabaki zuten Merinoa bahitzea, erabaki hori gauzatu behar zuena bahitzea, alkatea buru. Bahitu egin zuten, eta lortu zuten Fernando III.ak buelta ematea eta Ojacastron euskaraz epaiketak egin ahal izatea. Honen ikasgai nagusi bat dakarkigu. Garai horretan, egungo Euskal Herriko mugetatik kanpo euskara hitz egiten zen. Are gehiago, hizkuntza nagusia zela. Bestela, herritar horiek ez zuten Merinoa bahituko. Bahitu egin zuten euren hizkuntza eskubideak defendatzen zituztelako.

Hurrengo debekua 1349an Huescan eman zen. Huescan erabaki zuten merkatuan hainbat hizkuntza debekatu egin behar zirela eta tartean euskara. Ez zuten japoniera debekatu, ez zuten ingelesera debekatu. Huescako hiriburuan euskara debekatu zuten. Eta euskara debekatu bazuten, izan zen hiriburuan euskaraz egiten zelako, hizkuntza arrunt bat zelako Huescan.

Horrela jarrai dezakegu mendez mende. Euskarak ez du errege garailerik izan. Errege garaileek inposatu dituzte euren kultura eta hizkuntza estatuen mugen barruan, eta guk ez dugu errege garailerik izan. Horrek ez du esan nahi euskal hiztunak ez garenik zapaltzaileak izan errege batzuen mesedetan beste lurralde batzuetan eta baita Euskal Herrian ere. Baina gure kulturak ez du babestuko zuen errege bat izan historian, eta horregatik denboran minorizatutako hizkuntza da gurea. Gurea ez da hizkuntza txikia. Euskara ez da txikia den hizkuntza bat. Euskara txikitutako hizkuntza bat da. Armen poderioz txikitutako hizkuntza da.

Gaur egun, txikitutako hizkuntza horrek baditu etsai berriak. Kapitala gure etsaia da, hizkuntza gisa. Inperio guztiek aniztasuna murrizten dute, eta kapitalak ere aniztasuna murrizten du. Gaur goizean, justu kasualitatez, artikulua irakurri dut, Internet dela "kultura xurgatzailea". Kapitalak ekartzen du errentagarriak ez diren hizkuntzak eta kulturari adierazpideak denak desagertzea. Gaur egun gure harreman sozial gehienak merkatuaren bitartekaritza behar duten heinean, errentagarriak ez diren kultura adierazpenak desagertze bidean daude. Hori, baldin eta ez badagoen botere publiko indartsu bat horri kontra egiten diona. Horregatik Netflix eta Disney Plus ez daude euskaraz. Horregatik *youtuber* gehienek ingelesez edota txineraz egingo dute, baina ez euskaraz.

Bada esaten duenik euskara gaur egun burges kumeen hizkuntza dela. Baina euskara herri xehearen hizkuntza izan da beti. Aristokraziak beti egin du euskararen kontra, erregearen izenean aritu direlako. Eta hori hala izan zen Gernikako Juntetxean debekatu zutenean euskara hutsez aritzea. Hori horrela izan zen XVII. Mendean Gatzaren matxinadan eta aristokrata euskaldun erdarazaleek herri xehe euskalduna erreprimitu zutenean edota, Francoren alde Negurin palazioak beteta zeudenean.

Hor badago koherentzia historiko bat, boterearen koherentzia izan dena. Horrela heldu gara mende honetara. Inportantea da nondik gatozen jakitea, jakiteko gaur egun zein puntutan gauden. Bestela, normaltzat eman dezakegu gaur bizi dugun egoera, eta egoera hori iraultzeko hartzen diren neurri orekatzaileak botere harreman oso ezberdinen arteko bi hizkuntzen artean inposizio gisa ikusi daitezke. Horrela gertatzen ari da gaur egun administrazioetan. Sistematikoko zapalduak gu garenean.

Uste dut etorkizunean erronkak are handiagoak izango direla. Adimen Artifiziala ere ere izugarritzko erronka izango da. Algoritmoen bizitza izango da erronka izugarri bat etorkizunari begira. Algoritmoak diseinatzen dira iragana hartuta neurri moduan, eta iraganean hegemonia erdarazalea izan bada, algoritmoek ekarriko dute hegemonia hori etorkizunean ere erreproduzitzea. Ze gustatzen zaigun musika, ez da "gustatzen zaigun musika" baizik eta erakusten diguten musika. Eta algoritmoek ze musika ekartzen digute? Ekartzen digute iraganean arrakasta izan duen musika? Eta iraganean zein musikak eduki du arrakasta? Kapitalarentzat errentagarriak diren kultur adierazpideen arabera nagusi egin diren musika saioak.

Etorkizunari begira eta administrazioetara etorrita, gure oinarria zein da? Lehenengo, ideologikoki non gaude? ELAk defendatuko du euskaraz bizitzeko eskubidea eta euskaraz lan egiteko eskubidea. Sinplea da, baina horrek jada izugarritzko ondorioak dauzka; euskaraz bizitzeko eskubidea eta euskaraz lan egiteko eskubidea ez da norberak bakarrik egin dezakeen zerbait. Edozein eskubide zibil moduan, eskubideak bakarrik gauzatu daitezke beste batzuekin harremanetan. Horrek esan nahi du nire eskubideak obligazioak ekartzen dituela. Bestela eskubideak ezin dira gauzatu.

Badira euskara askatasunez erabili behar dela esaten dutenak. Horrekin esan nahi dugutena da iraganeke inposizio ontzat eman behar dugula, eta etorkizunari begira, gure eskubideak gauzatu ditzakegu, beti ere muga batekin. Muga hori da ezin dugula inor molestatu, ezin dugula beste inorengan eragin. Baina hori ezinezkoa da, eskubideak bakarrik

gizarte mailan eraman baitaitezke praktikara. Askatasuna beste modu batean ulertuko balitz! Askatasuna soilik elebidunok errespetatzen dugu. Elebidunok bakarrik ematen dugu aukera hizkuntza hautua egiteko. Hizkuntza bakarra dakienak hori ezin du egin. Eta hau ez da erruduntasun indibidual bat eledun elebarkarrekiko. Bakoitzak bere historia dauka eta heldu da heldu den puntura. Baina honek gizartera erronka bat dakar: zein neurri kolektibo hartzen ditugu gutxienez gizarte guztia elebiduna izan dadin? Edo gizartearen gehiengo bat..Baina hori ez da bere kabuz gertatuko. Hori hala izango da erabaki politiko sendoak baldin badaude zentzu horretan.

Oso deigarria da euskararen erakundea inposizio moduan ikusten duten sektore berdinek, Hezkuntza Legea eztabaidatu behar denean zein arazo jartzen dituzten murgiltze ereduak ezarri dadin. Jakin badakite D eredu indartu bat, murgiltze eredu bat dela gizarte elebidun bat sortzeko dagoen modu bakarra, beste neurri askorekin batera. Baina sektore berdinek askatasunaren izenean inposatzen dute, gizarteak hizkuntza bakarra derrigor ezagutu beharra etorkizunera begira.

Egunerokoa da euskaldun administrazioa hurbiltzen denean eskua altxatu behar duela, eta esan: "Nik nahi dut tratamendu berezi bat". Administrazioak ez daude prestatuta euskaraz lan egiteko. Eta tratamendu berezi hori, zein egoeratan? Esate baterako polizia kontrol batean. Polizia kontrol batean, normalean gizonezko armadun batek buenos días esan dizunean. Guk, euskaldun moduan askatasuna daukagu egoera horretan polizia horri esateko, "geldi, euskaraz nahi dut". Gutako zenbat ausartzen gara egoera horretan euskaraz aritzera? Edo medikuarengana goazenean, larrialdietan eta arazo bat dugunean eta etortzen zaigunean natural-natural, medikua erdaraz. Eta esan behar dugu: "Quieto, nik bere momentuan eskatu nuen harreran euskarazko atentzioa" Hori askotan gertatzen zaigu mediku euskaldunekin, hain zuzen, Osakidetza funtzionamendu naturala, erdalduna delako. Eta egoera horretan, euskaldunak eskua altxatu behar du eta esan behar du, "nik euskarazko zerbitzua nahi dut".

Baina Garrido epailearengana joan behar dugunean eta demanda bat sartu behar dugunean, esateko edozein, gure edozein eskubide aldarrikatzeko. Egoera horretan ere, ausartu behar dugu egoera horretan demanda bat sartzen, euskaraz artatuak izan gaitetzen baita ere epaitegietan. 2021ean 66 ekinzetan parte hartu zuten itzultzaileek. Hau da, 2021ean soilik 66 ekinbide judizialetan euskarak eduki zuela presentziaren bat. Beste guztiak erdara hutsez izan ziren. Hori ez da ezta %0,1a ere

ez eskailera mekanikoan. Hori da zapalketa sistematiko bat dagoelako, justizia alorrean. Erdara hutsez funtzionatzeko diseinatua dagoelako. Eta ez da epaitegietako langileen errua. Ez da polizia zehatzaren errua. Ez da mediku zehatzaren errua da. Sistema antolatuta dago erdara hutsez aritzeko. Askotan langile euskaldun bat hurbiltzen zaigu eta euskaraz hasten garenean, orduan, aiba, egia! Borondate ona edukita ere, administrazioak pentsatuta daude erdara hutsez funtzionatzeko.

Euskal Autonomi Erkidegoari buruz ari naiz. Nafarroako lurraldearen parte oso inportante batean eskua altxatzeko eskubiderik ere ez dago, eta Iparraldean ezta ere. Hau da sakoneko zapalkuntza erreala. Baina guregana heltzen dena beste zerbait da, gezurrak. Esango nuke hiru gezur nagusi direla, bereziki Vocento taldeak behin eta berriro errepikatzen dituenak, alderdi eta sindikatu *euskarafobo*ei oihartzuna emateko.

Lehenena, euskarak zerbitzuaren kalitatea okertzen duela administrazioan. Bigarrena, euskara diskriminatzailea dela. Hirugarrena, neurri handi baten, Confebask-ek bultzatuta, Euskarak talentua uxatzen duela.

Lehen gezurra. Zer da kalitatea? Kalitatea izan beharko litzateke herri-tarrok nahi dugun hizkuntzan artatuak izatea. Medikuntzarekin lotuta, txosten asko daude esaten dutenak argi eta garbi ez dela harreman berdina sortzen mediku eta gaixoen artean, ama hizkuntzan hitz eginez edo beste hizkuntza batean. Ez litzateke aukeratu behar ta mediku ona ala euskalduna. Hezkuntza sistemak bermatu beharko luke mediku on euskaldun nahikoak daudela sistema publikoan eman behar den zerbitzua eman ahal izateko. Zergatik hautatu behar da? Baina hautatu, soilik, euskararekin hautatu behar da. Begiratzen baldin badugu medikuntzako karrera erdaraz ikasten dutenek ba ote dute ikasgairen bat hizkuntzei buruz? MIR egin eta gero, etorkizunean Osakidetza-n lanean arituko diren langileentzat badago prestakuntza minimo bat? Ebakuntza jakin bat egiten ikasten den moduan eman behar den zerbitzua euskaraz ere eman ahal izateko? Erantzuna argi eta garbi ezezkoa da.

Bigarren gezurra. Euskara diskriminatzailea da. CCOO-ek egin du txosten batek dio langabezia daudenen herritarren %90a erdaldun elebakarra dela. Horrek esan du euskaldun izateak suposatzen duela automatikoki lana lortuko dugula eta administrazioetan autopista jarrita daukagula. Txosten horretan aukeratu duten ardatza euskara izan da. Beste ardatz bat ere hautatu zezaketen. Langabezia daudenen jatorria zein da? Ikasketa maila ere azter zitekeen: langabezia daudenen %80tik gora ez dute goi mailako ikasketarik. Diskriminatzailearena da argumentu

kuriosoa da. Izan ere, administrazioetan lan egiteko ez baitago eskubide unibertsalik. Inork ez nau ni diskriminatzen, mediku moduan ezin dudalako lanik egin Osakidetzan. Ezin dut lanik egin ez daukadalako mediku karrerarik. Euskara da elementu bakarra, non gehiago jakitea gaizki ikusita dagoen. Nik esango nuke honi buruz badagoela administrazioei buruzko ikuspegi korrupto bat. Administrazioetara langileak sartu behar dira zerbitzu bat emateko. Ostera, badirudi batzuen partetik administrazioetan sartzeari administrazioz zerbitzeko modu bat izan behar dela. Baina soilik euskararekin euskararekin gertatzen da: ezagutza gehiago edukitzea ezagutza gutxi edukitzearen berdina izan behar da. Akaso, medikuntza ikastea errazagoa da euskara ikastea baino. Edo Espainiako Konstituzioa, oposaketetan ikasi egin behar da. Zergatik ikasi behar da Espainiako Konstituzioa gero langileek gehienek ez dutenean inoiz erabiltzen? Eta aldiz, ez da euskara ikasi behar?

Hirugarren gezurra, talentuarena. Jakin behar duzue administrazioetan atzerriko langileek ezin dutela lanik egin modu orokorrean, Europako herritartasuna daukatenik izan ezik. Baina Europako herritartasuna daukatenek ere ezin dute lanik egin, ez dakitelako gaztelaniarik: lanpostuen %100ean inosatzen den hizkuntza bakarra gaztelania da. Hendaia irakasle batek ezin du Irunen lan egin ez badauka gaztelarazko C1 maila. Ezin du lanik egin, ezta euskara klaseak emateko ere. Aurreko egunean irratian esan nuen: Mundu mailako Nobel saridunen %90ek baino gehiagok ezin dute euskal administrazioetan lanik egin, eta ezin dute lanik egin ez dakitelako gaztelania. Gaztelania jakingo balute, lan egiteko aukerak izango lituzkete, euskara jakin ez arren. Euskara ezagututa ezingo luketela nik egin. Osakidetza arduradun nintzenean, bazegoen Holandakoa zen anestesista bat. Kontratua berritu behar ziotenean, ez zioten berritu, gaztelaniarik ez zekielako. Zergatik? Administrazioetako funtzionamendurako hizkuntza gaztelania izan behar delako, eta soilik gaztelania izan behar delako.

Talentuenak badauka bigarren parte bat. Egia da azkenaldian salbuespen bat egin dutela, talentuaren parte bat bai erakarri nahi dutela: Hego Amerikako medikuak. Ezkerreko ikuspuntu batetik kuriosoa iruditzen zait, batzuek nahi izatea Hego Ameriketara sekulako esfortzuz prestatutako jendea Hego Amerikara lapurtzea hona ekartzeko. Akaso, Hego Amerikan medikuak ez dira beharrezkoak? Zer nolako esfortzua egin behar duten herrialde txiroetuek medikuak trebatu ahal izateko! Baina lapurtu egin behar dizkiegu. "Talentua erakartzea" horixe delako, talentua beste batzuei lapurtzea. Eta gero, hurbil daukagun talentu batek ezin du lanik egin gaztelaniarik ez dakielako.

Benoa, gezur hauek prentsa jakin batean behin eta berriro errepikatzen dira. Baina euskararen gehiegizko exijentziaren mitoa da errealitatean zabaltzen ari dena. Gure ustez, honi ez zaio erantzun politiko irmo bat ematen, kalkulu politiko bat egiten delako. Eta kalkulu politiko hori zein da Euskal Autonomi Erkidegoan? Hauteskundeak irabazteko nortasunarekin edozein lotura daukaten gaiak bigarren maila batean egon behar dira, bestela botoa erakartzeko arazoak daude. Horregatik, gauza batzuei buruz ez da hitz egiten. Honek bi ondorio dauzka gutxienez. Lehenengoa ondorio materiala da: beldurra dela eta ez dira erabaki ausartak hartzen. Bigarrena: zapalkuntzaren kontzientziarik ez badago, Bermeoko ikasle horrek zergatik hitz egingo du euskaraz erdaraz hitz egitea askoz ere errazago zaionean Bermeon ere? Euskararekin daukagun atxikipen emozionala izan daiteke gure indargune bakanetako bat. Zergatik erreproduzituko da etorkizunean orain arte egin dugun guztia egokia izan bada eta ondo baldin bagaude? Auto-konplazientzia horretatik, zergatik erabakiko du jendeak eskailera mekanikoan gora egitea? Hori da erabaki militante bat, erabaki politiko bat, eta landu eta erreproduzitzen ez den neurrian galdu egingo da.

Klase kontzientzia ez da bakarrik sortzen. Guk landu egiten dugu eta askotan gatazkaren bidez egiten dugu lanketa hori. Greba batek sortzen du klase kontzientzia. Baina euskararen autokonplazientzia autokonplazientziak eramaten gaitu gatazkarik ez eragin nahi izatera. Horren eraginez kontzientzia ere sortzeko arazo oso handiak daude. Rosa Luxemburgok esaten zuen, katea mugitu ezean, katea ez dela sentitzen. Horrekin esan nahi zuen soilik borrokatzen duzunean konturatzen zarela zapalduak zaudela. Esango nuke euskararekin neurri batean ere horrela gertatzen dela. Soilik euskaltzaleak izanda eta euskaldun bizi nahi izate horretan, konturatuko garela errealitatean ezin dugula euskaldun izan. Horrek eragingo du kontzientzia bat, atxikipen emozional hori erreproduzitzeko gaitasuna emango duena. Hau da testuingurua eta hau da administrazio-tan daukagun egoera.

Bermatu nahi badugu, gizarte moduan euskaraz bizitzeko eskubidea eta euskaraz lan egiteko eskubidea, zer? Nora joan behar dugu? Joan behar dugu euskarari lehentasuna emango dion elebitasun batera bidean. Eta horretan momentua da helmugak argi jartzeko, nahiz eta bidean malguak izan gaitzkeen. Eusko Jaurlaritzak egin duen proposamenean bigarren mailako gaiak lehenetsi ditu, sakoneko elementuari ez eusteko. Bigarren mailako gai horietan ados egon gaitzke puntu batzuetan. Hurrengo Dekretuak iraganeakoak ez zuen eragina edukiko du Osakidetzan,

Justizia alorrean, Ertzaintzan. Hori positiboa da. Profil asimetrikoak jartzeko aukera hedatzen ari da. Horrek esan nahi du lanpostuan azterketa sakonago bat egin behar dela: zenbait lanpostuk ahozko ezagutza hobe behar dute idatzizkoa baino, edo alderantziz. Zentzuzkoa izan daiteke profil asimetrikoak izatea. Egia da ere beldur puntu bat ematen duela, konplexuz beteko batzuek erabiltzen baldin badute, horrek ekarri ahal duelako orokorrean hizkuntza eskakizunen murrizketa bat. Baina ondo erabilia, erabaki logikoa izan daiteke. Dekretuak ere ahalbidetuko du, tituluak azterketak euskaraz eginda edo euskaraz lan eginda erakutsi ahal izatea. Hori ere logikoa izan daitekeen neurri bat da. Formazioa derrigorrez euskaraz egiteko aukera jaso dute Dekretuan, edo azterketak derrigorrez euskaraz egiteko aukera. Bitxia da hau horrela jaso izana, gero euskarazko formaziorik ez dagoenean, edo azterketak euskaraz egiteko materialik ez dagoenean. Baina Dekretuak esango du derrigorrez hori euskaraz egin behar dela. Eta gero kudeaketa-tresna batzuk jasotzen ditu, eztabaidatu beharko ditugunak, edo ez. Izan ere sindikatuon papera ere ez dago batere argi dekretu horretan. Sindikatu hitza ez da aipatzen Dekretu guztian zehar, eta badaude gai batzuk lan-baldintzekin zuzeneko zerikusia daukatenak, eta, hala ere, guri buruzko aipurik ez da egiten.

Dekretuak badu gabezia handi bat eta konplexuz beteriko batzuek egindako Dekretua dela erakusten duen elementu bat: egungo hizkuntza eskakizunen markoa etorkizunera darama. Etorkizunean ere bai, lanpostuen %100ean gaztelania derrigorrezkoa izango dela eta euskara derrigorrezkoa izango da ingurune soziolinguistikoaren arabera. Elebitasunari uko egiten zaio eta uko egiten da euskara eta gaztelania parekatzeari, estatus berdina edukitzeari eta derrigortze maila berdina edukitzeari. Eta hori da Dekretuak daukan gabezi nagusia.

Eta bigarrena, eta oso kurioa da, lanpostu batean bigarren hizkuntza eskakizuna eskatzen baldin bada edo B2a eskatzen baldin bada, lanpostu horretan espresuki debekatua egongo da C1 edo C2 merituan aurkeztea. Hori soilik euskararekin egiten ausartzen dira. Imajinatu: medikuntzako gradua behar da, zuk master bat baldin badaukazu, Dekretuarekin, debekatuta dago master hori merituan azaltzea. Ez dira ausartzen oinarrizko ofimatika behar den lanpostuetan goi-mailako ofimatika ezagutzak meritua gisa aurkeztea debekatzen. Horrek oso argi erakusten du Dekretu hau, zeren beldurrak sortu duen. Horren aurrean, guk zer defendatzen dugu? Euskarari lehentasuna emango dion elebitasun bat. Elebitasuna da hizkuntza askatasuna bermatzeko oinarrizko lehenengo erabakia. Eta Euskarari lehentasuna ematea zer da? Epaite-

giek debekatu duten puntuetako bat da agurra euskaraz egiteko obligazioa ezarri ahal izatea, inposizio bat delakoan. Polizia batek *Buenos días* esaten didanean, badakit nire hizkuntza hautua jada mugatua dagoela. *Egun on* esaten didan momentuan, agian ausartuko naiz euskaraz egiten. Epaile horrek hori erabaki du, ez duelako inongo enpatiarik euskal komunitatearekiko. Ez dakielako euskaldun batek zer sentitzen duen zerbitzu bat euskaraz jaso nahi duenean. Lehentasuna ematea da erabat desorekatua dauden bi egoera orekatzeko modu bakarra. Eta gure abiapuntua hori da. Gure abiapuntua da elebitasuna eta euskarari lehentasuna ematea. Horrek ez du inoren hizkuntza eskubiderik zanpatzen. “Egun on” entzun ondoren, erdaldun elebakarrak nahikoa boteretuta daude esateko “Ez zaitut ulertzen”.

Hortik aurrera planteatzen duguna da egungo egoeratik epe-mugan jarri behar dela elebitasun unibertuala horretara iristeko. Hamabost urteko epea proposatu dugu. Epe horretan, urtean egungo langileen erdiek erretiroa hartuko dute eta trantsizio bat egin ahal izango da, zarata handirik gabe. beti ere epemuga hori errespetatzen baldin bada eta beti ere erreleboa langile euskaldunen bitartez egingo dela bermatzen baldin bada. Hamabost urteko epe horrek ematen du ere bai, erdaldun elebakarrei formaziorako laguntzak eta denbora eskainita euskaldundu daitezzen. Horretarako borondatea baldin badago, hamabost urtetan posible litzateke.

Gaur egun hori ez da UEMAko Herrirentzako proposamena, noski. Baina horrek ematen du gaur egun erdara hutsez funtzionatzen duten administrazioak epe jakin batean euskalduntzeko aukera, modu traumatikorik gabe. Baina hori ere inposizio moduan ikusten da. Baliabideena inportantea da; esan dudan Dekretuak ere ez du aurreikusten formaziorako aukerarik. Euskal Herriaren normalizaziorako Dekretu batek ez du aurreikusten langileak euskalduntzeko formazioa behar denik. Horrek ere baditu ondorioak. Guk aztertu ditugu berdintasun planak eta hurrengo ondorioa atera dugu: gizonezkoak euskalduntzea askoz errazagoa dela emakumezkoak euskalduntzea baino. Denok dakigu zergatik. Baliabideak ezartzea ere da genero berdintasuna bermatzea. Eta trantsizio horretan, tartean ere beste helmugaren bat jarri beharko litzateke, esateko bost urteren buruan euskarazko zirkuituak martxan egongo direla administrazio guztietan.

Langile euskaldunak egon daitezke, baina Administrazioak antolatuta dauden moduan, ez dago kate bat bermatzen dizuna Administrazioetik sartu eta atera euskaraz egin dezakezunik. Eta hori epe laburrean, ia,

bermatu beharko litzatekeen zerbait da. Esan dudan proposamen hau, LAB eta Kontseiluarekin batera adostuta daukaguna, erabat bideragarria da. Arazoa da ez dagoela borondaterik horrelako bide bat egiteko. Eta ez dago borondaterik beldurrarengatik. Horretan batzuetan gure buruari begiratzen diogu, eta igual ez gara nahikoa erakargarriak, eta erakarri behar ditugu PSOE-koak eta i behar ditugu alderdi popularrekoak. Ez daukagu erakargarritasun arazo bat. Ez dute nahi, beraiek badaukate inposatu nahi duten beste marko bat. Eroso daude beste marko horretan. ta eroso. Abertzale garen bakarrak ez gara hemen gaudenok. Beste aberri bat ere badago, eta beste aberri horren defentsan ere badaude, modu kontziente batean. Horrek ez du esan nahi ez dugunik behar diskurtso bat beste herritar batzuegana iristeko. Esango nuke, bota dudana edozein pertsona arruntengana iristeko moduko diskurtso bat dela. Soilik zapaltzaile kontziente batek esango du esan dudan hori ezin dela gauzatu. Beste gauza bat da norekin egin dezakegun bidea, eta esango nuke batzuekin ezinezkoa dela. Inori ez zaio otutzen matxismoaren kontrako neurriak VOX-ekin adostu behar direnik esatea. Ze hori da beto eskubidea ematea aldaketarik egin nahi ez duenari. Batzuetan kontzentzua erabiltzen da gutxiengotik beto eskubideak ezartzeko.

Gaurko saioa zelan bukatuko nuen ez neukan argi aurreko astean. Beste gutzia baneukan, baina zelan bukatuko nuen ez neukan argi. Eta alaba txikiarekin metroan nindoala, hain justu Erandioko geltokiak, argia etorri zitzaidan. Gizon bat ikusi nuen Aupa Maurizia! zihoen kamiseta batekin. Eta horrekin bukatu behar dut. Maurizia pandero jolea zen, abeslaria, oso berezko ahotsa zuen. Eta Mauriziak askotan kontzertuetan Aupa Maurizia! esaten zuen. Eta galdetu ziotenean, zergatik esaten zuen Aupa Maurizia!, zera esan zuen: *“Erantzun erraza da. Neronek ez badut aupatzen nire burua, nork egingo du? Leon albokarekin ari da eta ezin du. Afazio trikitalaria, totela da. Nik neuk ez badut nire burua aupatzen, nork egingo du?”*.

Euskararen gaiarekin berdin aritu behar dugula uste dut. Batzuetan denbora gutzian kanpora begira ari gara erantzunen bila. Ostera, gure indarguneak gutxiak gugan daude. Bada, horiek erabili beharko ditugu, eta esango nuke guk hiru indargune dauzkagula.

Lehenengoa da diskurtso indartsu bat daukagula. Gaztelaniaren inposizio ontzat ez ematea eta euskararen gaia politizatzea. Euskarak ez du etorkizunik politizatu ezean. Zergatik egingo dute hurrengo belaunaldiek euskaraz gaztelaniaz aritzea errazagoa zaienean? Soilik Iñakik azaldu duen atxikipen emozionala erreproduzitzen ikasten dugulako.

Bigarren indargunea. Gure kasuan, sindikatu euskaldunago bat eskaini behar diegu langileei. Sindikaturik onena gara, langileen beharrei ondoen erantzuten diona. Langile horiek, duten jatorria dutela ikusi behar dute sindikatua, beren bizi-baldintzak hobetzeko tresna euskalduna dela. Euskara mundu hobe bat egiteko gure borroka tresna da. Eta euskara hedatzean gure klase borroka gauzatzeko lurraldea ere errotzen arituko gara.

Eta hirugarren eta azken indargunea: administrazioen kasuan Jaurlaritzak uko egin duen eztabaida administrazioz administrazio gauzatzea gure esku dago. Borroka txiki asko piztea. Aupa Maurizia!

